

# B

BARREN

TOKIKOM





ESKERTZA

## MILAGROS MENDIKUTE IRIONDO

2013ko martxoaren 6an hil zen, 82 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## MARIA UNAMUNZAGA UNAMUNZAGA

2013ko martxoaren 8an hil zen, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## IÑAKI ARGARATE IRIONDO

2013ko martxoaren 7an hil zen, 50 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## IÑAKI ARGARATE IRIONDO

2013ko martxoaren 7an hil zen, 50 urte zituela.  
*“Ez zaitugu gehiago ikusiko gure artean,  
baina betirako egongo zara gure oroimenean”*

Zure lagunak



ESKERTZA

## IÑAKI ARGARATE IRIONDO

*“Ez agurrik, ez adiorik  
gero arte baizik”*

Betiko koadrila

2013ko martxoaren 7an hil zen,  
50 urte zituela.



Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives IMPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

## Elgoibarko Izarra: 50 urte argi egiten Izarrak Bertsotan (Doinua: Txantxangorria)

*Sari izaten dugu gidari beharra:*

*Egunez eguzkia, gaez izarra.*

*Erdi galdurik dabil gure Herri zaharra, hurbil ikusten baitu ilunaren marra;*

*nahiz izan indarra, sua eta garra,*

*galdera bakarra:*

*Non dago iparra "erakutsiko digun gure artizarra?"*

*Izarretatik dator distiraz sormena, biderako argia eta kemena.*

*Elgoibarrek badauka*

*behar genuena, alderdiak gainetik*

*batzen gaituela,*

*Gida onaren sena,*

*eutsi gogor lema,*

*azal ta barrena*

*bideratuz dena:*

*"ondo merezia du bere izena"*

*Jarri gaitezen, bada gerora begira;*

*zer poza lankideak*

*asko balira!*

*Jasotzen baduzue*

*begirada ortzira*

*iluntasunarekin*

*distiraz distira*

*gehiago baitira*

*txikitik handira,*

*argitik argira,*

*milaka guztira:*

*"Gure etorkizunaren*

*bermea dira"*

## XVI. Pilota Eguna

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, martxoaren 9an, ospatutako XVI. Pilota Eguna antolatzen lagundu duten Elgoibarko Pilota eskolako arduradunei.

Bestalde, eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei.

Datorren urtean ere laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

**Pilota Eguneko Batzordea** ☺

## Korrika

*AEK-ren korrika*

*itxaroten gaude*

*Euskal Herria pasaz*

*ezer laga gabe*

*Andoaindikan hasiz*

*lekukoan jabe*

*korrika itxen gabiz*

*ta euskaraz halere.*

*Euskal Herrian beti*

*euskararen alde!*

**Beinke Bertso eskola** ☺

## Okerrak zuzentzen

Pasa den asteko BARRENeko kirolen tartean, CD Elgoibarko Neska taldearen erreportaia argitaratu zuten. Badago paragrafo konkretu bat, behar bezala ulertzeko informazioa falta zaiona: "Klubeko zuzendaritzak ez gaitu kontuan hartzen, eta nesken taldea baldin badago gure lanari esker izan da', esan dute haserre. Ligan ez ziren fin ibili iaz, baina Kopa Txapelketa irabazi zuten, eta horixe izan zen CD Elgoibarrek eskuratu zuen garaikur bakarra: 'Hala ere, inork ez gintuen zoriondu'". Paragrafo hau idatzita dagoen moduan Klubeko zenbait pertsona irainduta sentitu daitezkeela onartzen dugu. Hori dela eta, pertsona hauei barkamena eskatu nahi diegu, ez baitzen, inondik inora, gure helburua izan.

**Nesken futbol taldea** ☺

Anjel Ugarteburu ☺

## Taxi aparkalekua Maalako errotondara aldatuko dute lekuz

Zortzi plaza egokituko dituzte errotonda bueltan, erdiko berdegunea txikituta

**T**axi aparkalekua lekuz aldatuko du Elgoibarko Udalak, sanbartolomeetan eta bestelako festa egunetan sarri taxisten sarrera-irteerak trabatuta gelditzen direla arrazoituta. Bi aldeek adostuta, Maalako errotondara aldatuko dute aparkalekua. Zortzi plaza egokituko dituzte errotondaren bueltan, eta horretarako, errotonda erdiko berdegunea txikituko dute. Udalak uste du apirilaren 1erako amaitu ahal izango dituztela lan horiek, baina obra egingo duen enpresak ez badio hori ziurtatzen, Euskal Herriko Itzulia pasa ostean ekingo diote lanari. Izan ere, apirilaren 1ean Elgoibarren hasiko da Euskal Herriko Itzulia, eta biharamonean, Elgoibartik bertatik abiatuko da bigarren etapa: Elgoibar-Gasteiz.

Gaur taxi aparkalekua dagoen leku hori, berriz, udaltzainek hartuko dute. Hala, San Frantziskoko iturri ondoan karga-deskargarako egokitutako lekuan udaltzainen autoak hartzten dituzten lekuak libre geratuko dira.



### ‘Parot doktrina’ salatzeko, elkarretaratzera deitu dute asteazkenerako

Hilaren 20an erabakiko du Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak Ines del Rio presoaren epaiaren inguruan; hau da, asteazkenean emango du *Parot doktrina* edo *97/2006 doktrina* delakoaren gaineko epaia, eta horren harira, elkarretaratzea antolatu dute Elgoibarren egun horretarako. 19:00etatik 19:30era batuko dira, Kalegoen plazan.

*Parot doktrina* Espainiako Auzitegi Gorenak 2006ko otsailaren 20an ebatzitako 197/ 2006 sententziak sortutako doktrina juridikoa da. 1973ko zigor kodearen arabera, preso batek gehienez 30 urte egin zitzakeen kartzelan, eta hartara ezarritako zigor guztiak 30 urtean biltzen ziren. Baziren, era berean, zigor hori arintzeko neurriak: zigorraren hiru laurdenak beteta izanez gero, baldintzapean aske irteteko aukera, espetxe onurekin kartzelan denbora gutxiago izatea... 1995ean eta 2003an, baina, zigor kodean aldaketak egin zituzten, eta erredentzioak kentzeaz gain, kondena-muga 40 urtera igo zuten. Eta zigor kode berriak ezarritako neurriak ezin zaizkenez aplikatu aurretiaz epaitutako presoiei, Auzitegi Gorenak kalera irtetear zeuden preso batzuen kondena luzatzea ebatzi zuen. Orditik gaur arte, 83 euskal presori ezarri diete doktrina hori, tartean Jokin Urain mendarorari. Urain 2009ko abuztuan irten behar zen berez kalera, baina 2016ra arte luzatu zioten kondena, eta Dueñaseko kartzelatik (Placencia) Herrera de la Manchara (Ciudad Real) lekuz aldatu zuten.

### Kalitatea Hezkuntzan ziurtagiria lortu du Elgoibarko Institutuak



*Iñigo Urkullu Jauriaritzako lehendakaria, Imanol Lopez Institutuko zuzendaria, Patxi Escudero Kalitate arduraduna, Cristina Uriarte Hezkuntza Sailburua eta Begoña Garamendi Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria.*

Elgoibarko Institutuak Kalitatea Hezkuntzan ziurtagiria lortu du. Kalitatea Hezkuntzan ziurtagiriak ikastetxeek kudeaketa berritzatzeko eta hezkuntzaren kalitatea hobetzeko garatzen dituzten programak saritzen eta aitortzen ditu.

Hilaren 4an jaso zuten Elgoibarko Institutuko ordezkariak saria, Euskal Herriko Unibertsitateko paraninfoan egin zuten jardunaldian. Iñigo Urkullu Eusko Jauriaritzako lehendakariak eta Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak banatu zituzten sariak, eta Elgoibarko Institutuaz gain, beste sei ikastetxe ere nabarmendu zituzten.

## Izena **Eduardo Arrillaga**



Arg.: Eduardo Arrillaga

Eduardo Arrillaga argazkilari elgoibartarrak irabazi du Burgoseko Udalak antolatutako *Miradas por la igualdad* argazki lehiaketa. Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako lehiaketa da, eta emakumeen eskubideak aldarrikatzea du helburu. *Almas guerreras* izeneko erretratu aurkeztu zuen Arrillagak. Dominikar Errepublikan ateratako argazkia da, eta hango emakumeak euren eskubideen defentsan ageri dira irudian.

## Zenbakia **40.783**

Urteko lehen bi hilabeteetan 40.783 txartel eman dituzte Elgoibarko OTA-TAO makinak. 242 aparkaleku daude Elgoibarren OTA-TAO sistemaz araututa (76 Aita Agirre plazan, 44 Maalan, 40 Guass-eko aparkalekuan, 32 Bernardo Ezenarro kalean eta 50 Xixilionen). Hortaz, aparkaleku bakoitzeko 3,7 tiket eman ditu makinak egunean. Udaleko arduradunek esandakoaren arabera, erdiguneko aparkalekuek erabilera horizontala dute eta egun osoan antzerako mugimendua izaten dute. Herritik apur bat kanpora dauden gunek aldiz gauz betetzen dira, bereziki. Udalaren helburua OTA-TAO guneen erabilera horizontala lortzea da. Udalak aurreratu du urte amaierarako Antonio Arrillaga eta Ubitarte kaleetan ere OTA-TAO sistema jarriko dutela.

## Irudia **Martxoak 8**

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, elkarretaratzea egin zuten joan zen barixakuan, Kalegoen plazan. Emakumeen Asanbladak, Haizea emakume taldeak eta Udaleko Berdintasun Sailak egin zuten deialdia, eta 40 bat lagun batu ziren, emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna aldarrikatzeko.



## **Gurasoentzako kafe tertuliak**

Gurasoentzako kafe tertulia antolatu du Gaztelekuak martxoaren 23rako. Nerabeentzako udarako aisialdi eskaintza izango da gaia, eta, 13 eta 18 urte bitarteko gazteek aisialdian, eta bereziki udan, herrian, probintzian edo atzerrian parte hartzeko dituzten aukerak landuko dituzte. Guraso guztiak daude gonbidatuta. Tertulia 11:00etan hasiko da, Gaztelekuan bertan. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 943 743 228 telefonora edo idatzi [gaztelekua@elgoibar.org](mailto:gaztelekua@elgoibar.org) helbidera.

## **Etxe kaleratzeei buruzko informazio saioa martitzenera aldatu dute**

Debabarreneko etxe kaleratzeen kontrako taldekoek informazio saioa emango dute martitzenean, 19:30ean Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Eguaztenerako egin zuten deialdia hasieran, baina Korrika dela-eta, egun bat aurreratu dute. Taldearen berri ematez gain, etxe kaleratzeen gaiari buruzko informazioa emango dute. Era berean, herritarrei taldean parte hartzeko deia egin diete. Interesatuek 627 934 675 telefonoan edo [stopdesahuciosbajodeba@gmail.com](mailto:stopdesahuciosbajodeba@gmail.com) helbidean eskuratu dezakete informazio gehiago.

## **Garapen pertsonala eta autosalbazioari buruzko hitzaldia hilaren 22an**

Garapen pertsonala eta autosalbazioari buruzko hitzaldia eskainiko du Pilar Burgoa espezialistak datorren barixakuan. 19:00etan izango da, Kultur Etxeko sotoan.

## **Minbiziari buruzko hitzaldia martitzenean**

Minbiziaren kontrako elkarteak antolatuta, koloneko minbiziari buruzko hitzaldia emango dute martitzenean Zubi Ondo elkartearen. Segidan, sukaldari batek koloneko minbizi duteen bizi kalitatea hobetzeko menua prestatuko du. 19:00etan hasiko da.

## Eguaztenean iritsiko da Korrika18 Elgoibarrera, 20:30ak aldera

Sigmako zubian egingo diote ongi-etorria

**A**tzo hasi zen euskararen aldeko lasterketa Andoainen, eta eguaztenean iritsiko da Elgoibarrera. Maltzaga aldetik etorriko dira lasterkariak, eta 20:30ak aldera helduko dira gurera. AEK-k 20:00etarako antolatu du ongi-etorria. Sigmako zubian batuko dira elgoibartarrak, eta Mauxitxa txarangak alaituko du giroa. 2.550 kilometro inguru korrika egin ondoren, hilaren 24an bukatuko da Korrika Baionan, eta Elgoibarko AEK-k autobusa antolatu du hara joateko. Interesatuak 607 601 423ra deituta edo *elgoibar@aek.org* helbidea erabilita eman dezakete izena.



### Korrika txikia

Herri Eskolak, Ikastolak eta AEK-k Korrika Txikia antolatu dute 5 eta 12 urte

bitarteko gaztetxoentzat. 15:15ean hasiko da Maalan, eta herria zeharkatu ostean, Kalegoen plazan amaituko dute.

## Maila ona erakutsi dute herriko dantzariak Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketan



Joan den asteburuan jokatu zuten Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa, Herriko Antzokian, eta oholtzara igo ziren 11 elgoibartarrak fin aritu ziren: kategoria guztietan igo zen elgoibartarren bat podiumera, eta guztira, zilarrezko hiru domina eta brontzezko bi eskuratu zituzten dantzari elgoibartarrek.

### ELGOIBARTARREN EMAITZAK

**MUTILAK (7-11 URTE)**  
3.- GAIZKA URANGA

**(11-15 URTE)**  
2.- ENEKO GONZALEZ

**NESKAK (11-15 URTE)**  
2.- LEIRE ASTIGARRAGA  
5.- ALAITZ EGAÑA  
10.- AMAIA ASTIGARRAGA

**NESKAK (7-11 URTE)**  
3.- OIHANE AGIRREBEÑA  
14.- IRATI MARCOS  
19.- AINHOA GOMEZ

**NESKAK (11-15 URTE)**  
2.- NEREA SASIAIN  
4.- MAIALEN LOIOLA  
7.- SAIOA MARCOS

### Tomas Madinabeitiari buruzko dokumentala Herriko Antzokian

Jairo Berbel argazkilaria Tomas Madinabeitia apaizak Kongon eginiko lanari buruzko dokumentala prestatu du. Oñati, Legazpi, Tolosa eta Elgoibarren izan zen apaiz Madinabeitia, eta urte asko eman zituen Kongon misiolari. Jairo bera ere joan zen Madinabeitiarekin Kongora, eta han bitakoa jaso du dokumentalean. Bideoan Tomasen senideek eta lagunek ere hartu dute parte.

Bi saio eskainiko dituzte Herriko Antzokian. Lehenengoa gaur zortzi izango da, 21:30ean, eta bigarren saioa hilaren 25ean, 20:30ean. Sarrera 3 eurotan jarri dute eta biltzen den dirua Madinabeitiak Kongon hasitako proiektuei jarraipena emateko erabiliko dute.



### Joseba B. Lenoir-en kontzertua domekan

Joseba B. Lenoir musikari nafarraren kontzertua antolatu du Sinueok domekarako. Ameba edo Sixty Sexers bezalako taldeetan ibilitakoa da Joseba B. Lenoir, baina oraingoan bakarkako proiektuarekin etorriko da Elgoibarrera. Bartzelonan bizi da gaur egun, eta han hasi zuen bakarkako ibilbidea. Rock and Roll estilo garratzenetik abiatuta, beste hainbat soinu estilo landu eta garatu ditu bere musika ibilbidean, eta bere azken lanean bluesa, folka eta rocka dira osagai nagusiak. Kultur Etxeko sotoan izango da kontzertua, 19:00etatik aurrera.

# ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEAK 50 URTE BETE DITU!

Elgoibar euskaldunagoa izateko 50 urteko herri-ahalegina izan da



1963ko martxoan sortu zuten herriko hiru euskaltzalek Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea. Garai hartako panorama benetan beltza zen euskaldunontzat, eta argi apur bat emateko gogoarekin ekin zioten euskararen aldeko herri-ahaleginari. Sortzaileen esanetan, *“zerbait egin nahi zen; bizinahi edo halako zerbait zegoen”*. Gainera, Elgoibarren ikastola urtebete lehenago sortu zen (1962ko ekainean), eta hura babesteko eta indartzeko ere sortu zuten Elgoibarko Izarra.

Ekimenak aparteko harrera izan zuen herritarren artean. Izan ere, elkartea sortu eta pare bat urtera 1.400 bazkide bildu ziren. Izugarria, garai hartarako. Herritarren babesak ematen duen konfiantzarekin eta berotasunarekin ekin zioten orduko euskaltzaleek euskaldunon aldeko lanari. Hala, besteak beste, honako proiektu eta egitasmoak sortu zituzten: ikastola, dantza-taldea, txistu-eskola, Odeoiko jaialdia, bertsolaritza, Aubixa aterpetxea, Udal Euskara Batzordea ...

Lehen hamabost urteak benetan emankorrak izan ondoren, 1980ko hamarkadan asko jaitsi zen Elgoibarko Izarraren ekimena eta eragina. Hala, 1990eko Batzar Orokorrean elkartea desagertzeko proposamena jarri zuten bazkide batzuek mahai gainean, baina, zorionez, bizpahiru bazkidek elkarteari eustea erabaki zuten. Ondorioz, 1991n ekin zion Elgoibarko Izarrak bigarren etapari, eta etapa berria ere emankorra eta oparoa izan da. Besteak beste, honako proiektuak eta egitasmoak izan dira bigarren etapan: BARREN astekaria, Gurean Bai hitzarmenak, Atxutxiamaiak, GAZ-T, Arigera, Toletxe taberna ...

Gehigarri honek 50 urteotako historiaren erakusleho txiki bat izan nahi du. Ezin dugu dena hamabi orrialdeko eskaparatera ekarri, baina balioko al du elkarteak Elgoibarko herriari eman dionaren zantzu batzuk jasotzeko.

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA 1963-2013  
...Elgoibar euskaldunagoa...

## Katea ezin delako eten

Elkartearen 40. urteurrenean argitaratutako *Izarren Hautsa 40 urtean* liburuan azaltzen diren protagonisten testigantza batzuk errekuperatu ditugu, Elgoibarko Izarraren 50 urteko jarduna hobeto ulertzeko. Erdiko zutabeen, berriz, Elgoibarko Izarraren editoriala irakur dezakezue.

• **Felix Etxeberria, Jesus Larrañaga eta Sabin Osoro (sortzaileak):**

“Gure ustez Elgoibarko Izarrarekin esnatu zan elgoibartarron euskaltzaletasuna. Lan ona egin dan ustia daukagu, eta Elgoibarko Izarra garrantzia haundiko elkartia bihurtu da Elgoibarren”

• **Luis Mari Iriondo (Ikastola):**

“Ikastolia ‘salvavidas’ bat izan zan nere-tzat. Gure familixak erdaldunak izango ziran ikastoliagaittik izan ez balitz”

• **Maite Ajuria, Marisabe Mujika eta Mariasun Uriarte (gau-eskola):**

“Gau-eskolan ez geneukan euskara erakusteko metodologiarik edo materialik. Batez ere berba egiten genuen ikasleekin. Gela berian lau irakasle egoten giñan, bakoitzak lau-bost ikasle hartuta”

• **Ixidor Solupe (dantza):**

“Hasieran dozena bat mutil eta beste horrenbeste neskarekin hasi ginen, baina 1968an 300dik gora umek ziharduen Elgoibarko Izarraren dantza-taldean dantzan ikasten”

• **Antton Azpiazu (txistua):**

“Elgoibarko Izarrako txistu-eskolaren hasiera gure etxean izan zen, aita irakasle zela. Gero, ikastolako geletan irakasten hasi zen, eta 80-90 ikasle izatera ere iritsi zen”

• **Josu Mujika (Odeoiko jaialdia):**

“Odeoiak gainezka egiten zuen San Santon Egunean, Elgoibarko Izarrako umeen jaialdiarekin. Grandiosua izaten zan”

• **Anjel Ugarteburu (bertsolaritza):**

“Elgoibarko Izarra 1981ean hasi zen bertsolaritza lantzen. Lan horren fruituak dira, besteak beste, bertso-eskola, Etxegiña bertsopaper-lehiaketa edo Gabonetako bertso-jaialdia”

**G**ure herrian euskara base-rrietan baino entzuten ez zen garaian sortu zen Elgoibarko Izarra; Plaza Txikian perretxiko bat topatzea ume bat euskaraz entzutea baino errazagoa zenean. Euskarak Maltzagaraino joateko ere balio ez zuela pentsatzen zenean. Mutilek gutxi eta neskek euskararik zegoenik ere ez zekitenean.

Egoera horren aurrean, munduari buelta emateko ilusioarekin ekin zioten Felixek, Jesusek eta Sabinekin. Diru eta baliabide handirik gabe, legediaren haizeak kontra zituztela. Baina gure hizkuntzaren alde egiteko ilusioak eta kemenak (eta herritarren babesak), gaina hartu zien bidean topatutako oztopo guztiei. Lozorroan zegoen euskaltzaletasuna esnarazteko eta kanporatzeko despertadorea izan zen Elgoibarko Izarra.

Eta, ohartu gabe, 50 urte bete ditu Elgoibar euskaldunagoa izateko herri-ahaleginak. Behar bada ez dugu munduari buelta ematea lortu, sortzaileek nahi zuten moduan, baina gure parean daukagun mundutxo duela mende erdi baino euskaldunagoa da. Plaza Txikian ume gehienek euskaraz dihardute. Baina oraindik ez dugu guk amesten dugun mundua erai-ki, eta aurrera egingo dugu 1963ko martxoan zabaldu zuten bidean. Halako batean iritsiko garen esperantzarekin. Guregatik beste batzuek egin bazuten, guri ere badagokigu gure ondorengogatik egitea. Katea ezin delako eten.

*Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte*

• **Juan Jose Araolaza (Aubixa):**

“Papera eta kartoia batuz eta salduz lortu genduan Aubixa konpontzeko dirua. Eta estreinako literak, berriz, Pasaian zagan itsasontzi amerikar bati kendutakuak izan ziran”

• **Iñasio Garmendia (eragilea):**

“1990ean elkarte desagertzeaz egon zen. Ez zegoen jenderik eta, txarragoa zena, eginkizunik ere ez genuen ikusten. Eskerrak batzuek elkarteari eutsi egin behar geniola erabaki genuen”

• **Alberto Agirreazaldegia (BARREN):**

“Kontra ez zagan inor, baiña oso gitxik siñisten zeben BARREN proiektuan. BARREN, nire ustez, elgoibartarron arteko giza-harremanak sendotzeko tresna izan da, eta hori ez da euskaratik bakarrik baloratu bihar”

• **Mari Jose Zubiaurre (Gurean Bai):**

“Gurean Bai proiektuari esker, gaur egun inork ere ez digu esan bihar euskeraz egin behar dogula. Elgoibarko Musika Eskolan gaude, eta euskalduna izan behar da”

• **Nerea Oñederra (Atxutxiamaika):**

“Atxutxiamaika umiak hezteko proiektu bat da; umien etorkizunian zeresan haundixa izango deben balixuak lantzeko. Eta hori dana euskaraz, noski, gure txikienean euskalduntasuna sustatzeko”

• **Josean Gomez (Arigera-Tertuliak):**

“Derrigorrezkoak dira euskara-ikasleei laguntzeko proiektu bereziak. Euskaltegian egiten dena ondo dago, baina ez da nahikoa. ARIGERA eta Tertuliak bezalako programek asko laguntzen dute”

• **Aitzol Arriola eta Joseba Gorosabel (Toletxe-taberna):**

“Toletxe taberna-proiektuarekin herriko taberna-giruan sumatzen genduan hutsune bat bete nahi izan genduan, baiña, oro har, herritarrek nahi al zeben Toletxe bezelako proiektu bat? Ezetz, uste dogu”



## Elkarteko sortzaile eta presidentek

50 urteotan Elgoibarko Izarrako bazkide izan diren guztien zerrenda emango genuke gustura, baina hori ezinezkoa zaigunez, elkarteko sortzaileak eta lehendakariak ekarri ditugu orri honetara. Eta bi sortzaileren berbak ere bai. Jesus Larrañaga hilda dago, zoritxarrez.

SORTZAILEAK
Felix Etxeberria
Jesus Larrañaga
Sabin Osoro

LEHENDAKARIAK	URTEA
Manolo Rementeria	1963-1964
Jesus Mari Ansola	1965-1966-1967
Felix Etxeberria	1968
Luis Mari Iriondo	1969-1970
Luis Bilbao	1971-1972
Juan Jose Araolaza	1973
Manolo Zabala	1974
Lazaro Astigarraga	1975
Enrike Zubiaurre	1976
Milagros Oiartzabal	1977
Jose Luis Bastida	1978
Felix Etxeberria	1979
Alberto Agirreazaldegui	1980
Antonio Irigoien	1981
Andres Alberdi	1982
Iñaki Konde	1983
Pedro Bergara	1984
Pedro Urkidi	1985
Jose Urresti	1986
Juan Mari Eguren	1987
Jesus Mari Aizpurua	1988-1989-1990
Ales Arrieta	1991-1992-1993-1994
Inaxio Garmendia	1995-96-97-98-99-2000
Beñat Bilbao	2001-2002-2003-2004
Ane Zabala	2005-2006-2007
Ander Soraluze	2008-2009-2010
Iñaki Konde	2011-2012-2013



**FELIX ETXEBERRIA**  
Sortzailea

“Ikastola sortu genuen lehenik, eta handik urtebetera sortu genuen Elgoibarko Izarra, Ikastolari babes emateko.

50 urte pasatu dira ordutik... Elgoibarren eta beste herrietan ere lan handia egin da urte hauetan euskararen alde. Beti dago gehiago egitea, baina lan handia egin du Elgoibarko Izarrak euskara indartzeko. Elgoibarko Izarra ez balego, akabo! Orain dela 50 urte erderak itota bizi ginen. Orduko Elgoibarrek eta gaur egungoak ez daukate zerikusirik, eta eskerrak! Egoerak hobera egin du, eta gaur behintzat jendea euskaraz hitz egiten entzuten da kalean. Orduan kalean ez zen euskaraz hitz egiten, eta erdera zen nagusi. Etxean bakarrik egiten genuen euskaraz. Elgoibarko Izarrak lan asko egin du hori hobetzeko, baina egindako guztia ere gutxi da.

Etorkizunera begira ez naiz oso baikorra. Lehen berotasun handia izan genuen, baina gaur egun, euskararen aldeko borrokan jendea hoztu egin dela iruditzen zait. Koadrila askotan euskaraz ez dakien lagun bakarra etortzen denean, denek egiten dute erdaraz, denak euskaldunak izan arren, eta hori aldatu egin behar da. Euskara jakin gaur egun ia denek dakite, baina erabili... zenbatek? Dakienak euskara erabiltzea lortu behar dugu, eta hori izan behar da Elgoibarko Izarraren zereginetako nagusia”.



**SABIN OSORO**  
Sortzailea

“Euskal kultura euskaraz egiteko jarri genuen martxan Elgoibarko Izarra

1963an, eta baita urtebete aurretik sortu zuten Ikastolari babes juridikoa emateko ere. Sortu eta berehala lortu zituen elkarteak 1.400 bazkide! Orduan erderia bakarrik entzuten zen kalean, eta euskara etxean bakarrik erabiltzen zen. Elgoibarko Izarrak eman zion euskarari garai hartan behar zuen bultzada, eta orduan hasi zen euskal kontzientzia sortzen.

Egoera asko hobetu da, baina gaur ere entzuten dira gazteak erdaraz hizketan, Ikastolakoak ere bai, eta hortxe dago akatsa. Euskaraz dakitenak asko dira, baina erabiltzen dutenak gutxi. Erakustez gain, euskara erabiltzeko kontzientzia sortu behar diegu gazteei. Elgoibarko Izarrak lan ona egiten duzue. Udalaren laguntza handia jasotzen du elkarteak, eta murrizketek beldurra ere ematen dute, baina ez dut uste elkarteak desagertuko denik, ez nuke nahi behintzat! Lana badago, lanerako gogoia duzuenak zaudete elkartean eta diru faltagatik lanik ezin egin! Hori da marka! Penagarria izango litzateke diru faltagatik Elgoibarko Izarra desagertzea. Beste elkarte batzuk joan ziren, baina Elgoibarrentzat oso garrantzitsua da Elgoibarko Izarra”.

*Elgoibar herri euskalduna izateko lanean jardun dugu  
50 urteotan, adreiluz adreilu, gure etorkizuna eraikitzen.*

**2007**

**LUDOTEKA ETA GAZTELEKUA  
UDAL ZERBITZUAK**  
5-18 urte bitartekoei zerbitzu jarraia  
eta iraunkorra eskaintzeko

**2009**

**EUSKARA EDO EZKARA**  
Gotzon Garate zenaren oroimenez

**2002**

**GUREAN BAI MERKATARITZA**  
Bezeroak euskaraz  
hartzeko konpromisoa

**2003**

**BERBAZULO ERREFORTZU-PROGRAMA**  
Txikienen euskara-gaitasuna sustatzeko.

**2004**

**KIRIBILKA**  
Familia-transmisioan eragiti

**1994**

**SANTA ESKEA**  
Baserriz baserri,  
kantuan eta eskean

**1996**

**ATXUTXIAMAIIKA  
AISIALDI TALDEA**  
txikienak eta euskara  
eskutik helduta

**1996**

**GUREAN BAI-ELKARTEAK**  
Euskaraz jarduteko  
konpromisoa

**1998**

**GAZ-T AISIALDI**  
Euskara ez  
umeen ko

**1973**

**AUBIXA BASERRIA**  
Umeek euskaraz  
jolasteko aterpea

**1981**

**BERTSO-ESKOLA**  
Euskararen ganbara  
aberasteko

**1983**

**EGUBERRIETAKO  
BERTSO-JAIALDIA**  
Tradizioa bihurtu den zita

**1987**

**TXITXILIBAKIO AL**  
Lagunartean eg  
noizbehinka

**1962**

**IKASTOLA**  
29 ume Itziar Ajuria andereñoarekin

**1963**

**ELGOIBARKO IZARRA**  
Euskaraz eta euskararen  
alde egiteko

**1964**

**DANTZA-TALDEA**  
14 mutil eta 20 neskarekin

**LEHEN ETAPAKO (1963-1990) BESTE PROIEKTU-EGITASMO BATZUK:**

- Mendi irteerak
- Balet eta ingeles eskolak
- Berbenak eta ikastolako taberna
- Danborrada
- Sentsibilizazio kanpainak
- Etxepe eta Etxegiña lehiaketak (literatura eta bertsoak)
- ...

2013

ELGOIBARKO IZARRAREN 50. URTEURRENA  
Ospatzeko moduko lana egin dugulako

2011

BEINKE BERTSO-ESKOLA  
Bertsotzaren erakundearen eta euskara lantzeko

2012

ATZERA BEGIRA, AURRERA EGITEKO (1990-2010)  
BALORAZIO-LANA  
Aurreak erakusten duelako atzeak zelan dantzatu

2006

ELGOIBARREN.NET ATARI DIGITALA  
Teknologia berriak ere baliatu behar ditugulako

2006

KUADRILLATEGI EGITASMOA  
Gazte koadriletan euskararen  
erabilera indartzeko

2000

ARIGERA  
Helduen euskalduntze-  
alfabetatzea sustatzeko

2000

TOLETXE TABERNA  
Nahi eta ezina

2001

TERTULIAK  
Euskaraz jarduteko aukera

1987

UDAL EUSKARA BATZORDEA  
Administrazioaren  
ardura ere badelako

1991

ELGOIBARKO IZARRAK  
Bigarren etapari  
ekin zion

1992

ELGOIBARREN ASTEKARIA  
Elgoibarko berri emateko

1965

TXISTU-ESKOLA  
Antonio Azpiazu zena irakasle zela

1966

GAU-ESKOLA  
"Erderiak ez ittetzeko"

1966

SAN ANTONETAKO JAIALDIA  
Odeoiak gainezka egiten zueneko

## BIGARREN ETAPAKO (1991-2013) BESTE PROIEKTU-EGITASMO BATZUK:

- Kultur programazioa: Kafe Usainean, idazlehiaketak, Urruzuno literatur taldea ...
- Omenaldiak: Pedro Migel Urruzuno, Pako Juaristi, Gotzon Garate ...
- Txikieneztat: Lurra eta hizkuntza eta Jolasian

- Nerabeentzako plan integrala, euskararekiko sentsibilizazioan eragiteko.
- Nazio mailako ekimenak: Egunkaria-Berria, Korrika, Kontseilua, Topagunea ...

## *Hemezortzi erretratu 50 urteko historia ikusteko*

Ehunka erretratu beharko genituzke Elgoibarko Izarraren 50 urteko historia ikusteko, baina ez dugu lekurik, eta hemezortzi erretratu aukeratu ditugu elkarteak egindakoaren ideia bat jasotzeko.





## Zer lortu du Elgoibarko Izarrak 50 urteotan?

**Luzea da Elgoibarko Izarrak 50 urteotan egin duen bidea. Dozenaka proiektu eta egitasmo pres-tatu eta jarri ditu martxan, Elgoibar euskaldunagoa izateko helburuarekin. Baina, zer lortu du? Elgoibarrek zer lortu du Elgoibarko Izarrari esker? Hori da bi orriotan aztertuko duguna.**



### *“Jendearen lana, parte-hartzea eta inplikazioa izan ziren garai hartako lorpenik handienak”*

*MILA OIARTZABAL, lehen etapako lehendakaria*

**S**altsa askotako perrexila izan da beti Mila, “gizona ere hala-kua zan, eta harekin batera jarduten naban han eta hemen”, eta ez dauka minpekorik pentsatzen duena esateko. Etorri oneko iturria da. Elgoibarko Izarran zergatik sartu zen galdetuta, “zeozer egin bihar zalako euskeriaren eta gure kulturearen alde” erantzun digu. Hala, elkartearen alde lan asko egin ondoren, 1977an presidente kargurako aukeratu zuten Mila. Bera izan zen lehen eta-pan lehendakari karguan egon zen emakumezko bakarra, baina horri ez dio inolako garrantzirik ematen. Horri baino gehiago erreparatu dio garai hartan bizi zuten egoerari: “Oso garai zaila tokatu jatan. Franco hil berri zan, eta 40 urte hauteskunderik gabe egon ondo-ren, bilddurra zan nagusi. Ez zagan askatasunik. Lehendakari kar-gua hartu eta hurrengo egunian, adibidez, Guardia Zibillen kuar-te-lera jun behar zian nintzan fitxa bat betetzera. Etxeko guztien datuak eskatu ziezen!”.

Lehendakari karguan izan zituen ardurarik garrantzitsuenak kontatzeko eskatu diogunean, di-da batean etorri zaizkio burura ikastola eta Aubixa baserria; eta baita dirua biltzen zenbat egun eta

ordu pasa zituen ere. Esan diogu Elgoibarko Izarraren lorpenen gai-neko gogoeta egiteko deitu diogula, batez ere, eta honako hausnar-keta egin digu: “Garai hartako lorpenik garrantzitsuena jendiaren lana, inplikazioa eta parte-hartzea izan zala uste dot. Elkartiak eus-keriaren eta euskaldunon eskubidien alde egiteko aukeria eskaini zan, eta jendiak lan asko eta asko egin zaban. Une batzuetan herri guztia ere mobilizatu zala esango neuke. Garai hartako egoe-ria zein zan kontuan hartuta, Elgoibarko Izarrak asko lortu zaban. Herrixan pisu haundixa zaukan elkartiak, eta ahal zan guztia lortu zabala uste dot”.

Elkarrizketari amaiera emateko, oroitzapenen kutxa zabaldu digu Milak, eta, besteak beste, garai hartako elkartasuna eta lanera-ko prestutasuna nabarmendu dizkigu. Eta egindako lanak merezi izan zuela ere esan digu. Epoka gogorra izan zela, baina oso interes-garria, eta asko ikasi zuela.

Milak ez dauka asti gehiago gurekin egoteko. Ilobetako batek 10 urte bete ditu, eta berarekin geratuta dago; sagar-tarta oparitu behar dio Unairi, berak hala eskatuta.

### *Argi-zuzia garai ilunetan*

*ANDRES ALBERDI, lehen etapako lehendakaria*



**D**enboran datzera jotzeko, eta Elgoibarko Izarrak bere lehen urteetan (1963-1990) egin zuenaz nire iritzia emateko eskatu didate.

1973ko irailean iritsi nintzen ni Elgoibarrera. Ordura arte sekula egon gabea nintzen bertan, eta, egia aitortu behar badut, esan behar dut argi-itzaletz beteriko herri batekin egin nuela topo. Itzal nabarmenena euskararen egoera tamalgarriak eragiten zuen: apenas entzuten zen hura herriko bazter-plaze-

tan, denda-tabernetan eta lagun-koadri-letan. Bazen, gainera, errealtate hori are okerragotzen zuen bestelakorik ere: gerra osteko belaunaldi zenbaitek euska-rra guztiz galdua zuten betiko. Belaunaldien arteko hizkuntza-katea erabat etenda zegoen herrian. Beltza zen, zinez, euskararen geroa alde horretatik.

Argirik ere bazen, ordea, euskararen mortu hartan. Esperantzari leihoa ireki-tzeko adina haize berri zekartzan kultu-rra-elkarte dinamiko eta bizi bat serio eta emankor ari zen lanean: Elgoibarko Izarra elkarte, hain juxtu. Herriko hain-

bat alor eta proiektu jorratzen ziharduen buru-belarri: ikastola, euskal dantza, txistu-eskola, gau-eskola, bertsolaritza, Aubixa udalekua... Herriaren babes eta aitortza zituen gainera elkar-teak.

Babes eta aitortza horiek ez zituen debalde irabazi, lana ondo eginaren frui-tu eta ondorio modura baizik. Izan ere, bi oinarri sendoren gainean eraikitako proiektua zuen eskuartean. Alde batetik, garai hartako euskal gizarte-sarea ehun-tzen eta batzen jakin zuen; eta bestetik, gaitasuna eta gogoia zuen jendea zebilen horretan.

## Zer lortu du Elgoibarko Izarrak bigarren etapan (1990-2013)?



IÑAKI KONDE, *Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak lehendakaria*

**E**z da erreza 23 urteko lan-jardunak eman duena horrelako zutabe batean baloratzeari. *Atzera begira, aurrera egiteko* balorazio-txostenean jasota laga dugu 1990etik hona egindako lanaren hausnarketa. Zutabe honetara inpresioak ekarriko ditut; egindako lanaren gaineko sentsazioak.

Lehen sentsazioa Elgoibarko Izarrak lan handia egin duela da. 1990etik lan asko egin du, izugarri, Elgoibar euskalduna(goa) izateko ahaleginean. Bigarren etapan egindako proiektu, egitasmo eta ekimenei erreparatzen badiegu, inork gutxik espero zuen besteko lana egin duela konturatuko gara.

Bigarren sentsazioa, gauza asko ondo egin direla da. Proiektu eta egitasmo asko ondo edo oso ondo irten dira, eta eragin handia edo polita izan dute elgoibartarren artean. Hori bai, badakigu dena ez dugula ondo egin, eta, tartean, izan da oker irten zaigun proiekturik.

Hirugarren sentsazioa da 1990etik hona lehen etapako izaera galitzen joan garela poliki-poliki. Euskararen aldeko herri-mugimendua izatetik, euskararen aldeko zerbitzu-elkartea izatera pasa da, neurri handi batean, Elgoibarko Izarra. Langile profesionalak ugaltzen joan diren heinean, herri-mugimenduaren izaera makaltzen joan da.

Laugarren sentsazio bat ere badut. Lan izugarria egin da 23 urteotan, proiektu batzuk gure herriko parte dira, eta bazkide batek esan zigun moduan, Elgoibar ezberdina litzateke Elgoibarko Izarra 1990ean desagertu izan balitz.

Bosgarren eta azken sentsazioa. Elkarteak egin duena herritarrengana iritsi ez den susmoa daukat; elkarteak ez duela asmatu egindakoa gizarteratzen; bazkidea eta herritar asko ez da jabetu elkarteak egin duenaz. Proiektuak bai, proiektu eta egitasmo gehientsuenak iritsi dira bazkide eta herritarrengana, baina elkarte herritarrengandik aparte samar geratu den sentsazioa daukat.

Sentsazioak dira, 23 urteko lanaren ondoren geratzen zaidan aho-gustua. Balorazioa (oso) ona da, baina horrek ez gaitu itsutu behar, eta badakigu zuzendu eta aldatu beharreko kontu batzuk daudela. Horien gainean jardungo dugu, hain zuzen ere, besteak beste, laster ekingo diogun gogoeta-prozesuan. Elgoibarko Izarraren etorkizuna erabakiko dugun gogoeta-prozesuan. Hala ere, eta amaitzeko, behar bada, gure balorazioak baino balio handiago izango du bazkideon eta herritarren balorazioak. Izan ere, zuok esan beharko duzue Elgoibarko Izarraren itzala eta eragina sentitu duzuen ala ez azken 23 urteotan. Zuok esan beharko duzue Elgoibarko Izarrak zenbateraino eragin dizuen zuen euskalduntasunean.

“Elkarteak asko lortu du Elgoibar euskaldunagoa izateko ahaleginean.

Gurean Bai-elkarteak, adibidez, eragin handia izan zuen, eta oraindik ere badauka.

Atxutxiamaikaren inguruan, aisialdiari lotutako zerbitzu bikaina daukagu, eta, gainera, eragina dauka euskalduntze prozesuan. Eskaintzen duena asko da, eta oso baloratua da. Atxutxiamaikaren balioa ez da euskararen ikuspegitik bakarrik baloratu behar.

Eta, noski, BARREN eta elgoiBARREN.net. Lehenak inflexio puntu bat ekarri zuen Elgoibarrera, eta bigarrena erreferente bihurtzen ari da. Bi proiektuok derrigorrean mantendu behar ditugu”.

“Elgoibar euskaldunagoa izateko xedearekin, herrian fronte asko eta desberdinak ireki ditu. Ezagunena BARREN astekaria izan da. Proiektu honen bidez, elgoibartar askok euskaraz irakurtzeko eta ulertzeko gaitasuna etengabe lantzeko aukera izan du. Bide batez, euskara estandarra ulertzeko bidea eman du. Bestetik, herriko notizien berri euskaraz irakurtzeko aukera izan du. Euskararen erabilera sustatzeko, Gurean Bai proiektuaren eragina azpimarratu nahiko nuke, merkataritzan eta kirol elkarteetan, batez ere.

Atxutxiren bueltako proiektuekin, berriz, txalogarria da umeen eta gazteen arteko harremanak euskaraz izateko egin den lan eskerga”.

“Atxutxiamaika, dagoeneko, ez da gaztetxo talde bat bakarrik. Herriko umeen aisialdiko erreferentzia da, eta euskaraz da erreferentzia hori.

Gurean Bai, herriko erakunde askok, eta dendariak, bereziki, lehen hitza euskaraz izateko pausua ematen lagundu du.

BARREN izan da kalera begirako arrakasta handiena. Erreferentzia da, bai umeentzat eta baita aitona-amonentzat ere. ElgoiBARREN.net ere bada, eta ez argazkiak edo bideoak eskaintzen dituelako bakarrik; berehalakotasunagatik ere bai.

Sendo ikusten dut Elgoibarko Izarra, eta azken bi urteetan egindako hausnarketak mesede egingo dio”.

“Bigarren etapan Gurean Bai, Atxutxiamaika eta BARREN/elgoiBARREN.net proiektuak izan dira, nire ustez, lorpenik garrantzitsuenak. Proiektu horiek euskara gure herriko hainbat gunetara eta esparrutara zabaltzea lortu dute. Herriko hainbat arlo eta esparrutan euskararen erabilera asko normalizatu da Elgoibarko Izarrari esker. Gaur egun, adibidez, elgoibartarrok ezingo genuke ulertu gure haur eta gazteen aisialdia erdaraz izatea; edo herriko berriak, astero-astero, edo egunero, gure buzoietan eta ordenagailuetan gaztelaniaz jasotzea. Gaur egun hain normala den hori, ez da berez sortu; Elgoibarko Izarraren lanari esker izan da”.

Ales Arrieta

Iñasio Garmendia

Beñat Bilbao

Ander Soraluze

## Bazkideen ahotik

Elgoibarko Izarra ez litzateke ezer bazkiderik gabe. Eta bakoitzak berea eman dio elkarteari. Elkarren artean desberdinak izan arren, batzen dituenari garrantzia emanda antolatu dira bazkideak elkartearen bueltan. Bakoitzak bere moduan bizi izan du Elgoibarko Izarra, eta hori azaltzeko eskatu diegu.

### NAIARA MARTIN



*“Elkartetik asko dauka nere bizitzak eta bizimoduak. Hezitzaile bezela balore batzuk transmititzairekin batera, horiek ere jaso ditut, eta horien eta bizitako esperientzien ondorio naiz gaur egun. Harro esaten dut Elgoibarko Izarrakoa naizela”.*

Elgoibarko Izarran. Zorioneko sentitzen naiz haien kide izateko aukera eduki dudalako. Elgoibartarrok Izarra piztuta, bizirik, behar dugu”.

### IZASKUN ELIZBURU



*“Gaztetandik euskeraren aldeko hainbat proiektu eta hainbat lagun ezagutu eta konpartitu ditut*

Elgoibarko Izarran. Zorioneko sentitzen naiz haien kide izateko aukera eduki dudalako. Elgoibartarrok Izarra piztuta, bizirik, behar dugu”.

### ITZIAR AGIRREGOMEZKORTA



*“Elgoibarko euskaldunontzako erreferentzia puntu bat izan da Elgoibarko Izarra. Eta bertako bazkideok harrotasunez bizi izan dugu hori. Gaur egun ere, euskaldun izateaz harro gaudenok batzen gara elkartean”.*

Elgoibarko Izarran. Zorioneko sentitzen naiz haien kide izateko aukera eduki dudalako. Elgoibartarrok Izarra piztuta, bizirik, behar dugu”.

### ANGEL UGARTEBURU



*“Herriarrok funtsezko egin-kizunetan batzen gaitu elkarteak. Elgoibarrek bere nortasunean irauteko kezka eta lanari eutsi dio eta bide onetik goazen ziurtasuna eta itxaropena dauzkat”.*

Elgoibarko Izarran. Zorioneko sentitzen naiz haien kide izateko aukera eduki dudalako. Elgoibartarrok Izarra piztuta, bizirik, behar dugu”.

### ANTTON AZPIAZU



*“Elgoibarko Izarrako bazkidea naiz euskal kultura eta euskararen alde lan egiten dugulako eta*

elkarte zabal eta garbia delako. Urte guzti hauek pasatu ondoren egindako lana ez da alferrikakoa izan, eta horrek indarra ematen digu”.

### JUAN KRUIZ SASIAIN



*“Neurri handi batean elkartearen helburuak eta nireak bat datoz. Elgoibarko Izarrak, besteak beste, nik beti amestutako euskararen normalizazioaren alde lan egiteko aukera eskaintzen dit. Eta hori elkarlanean lantzeko aukera, gainera”.*

Elgoibarko Izarran. Zorioneko sentitzen naiz haien kide izateko aukera eduki dudalako. Elgoibartarrok Izarra piztuta, bizirik, behar dugu”.

### IRATI AGIRREAZALDEGI



*“Umetan etxetik, gurasuengandik, jaso naban elkartia. Gaztetxua nintzala bertsua nere barreneraino sartu zabana, eta gaztetan BARRÉN herrira zabaltzeko ahaleginian laguntzeko aukeria eman zidana. Euskeria Elgoibarren izar bat, bere txixixan handi, dizdiratsu, bihurtzeko saiakeria egiten daban elkartia da”.*

Elgoibarko Izarran. Zorioneko sentitzen naiz haien kide izateko aukera eduki dudalako. Elgoibartarrok Izarra piztuta, bizirik, behar dugu”.

### ANE ODRIA



*“Elgoibarren euskararen alde diharduen eragile nagusia da Elgoibarko Izarra, eta bertako bazkide izatea euskarari behar duen bultzada emateko modu bat da niretzat. Euskararik gabeko Elgoibarrak imajinatzen ez dudalako naiz Elgoibarko Izarrako bazkide”.*

Elgoibarko Izarran. Zorioneko sentitzen naiz haien kide izateko aukera eduki dudalako. Elgoibartarrok Izarra piztuta, bizirik, behar dugu”.

### ASIER ORBEA



*“Elgoibarko zeruana Euskara izeneko izar-multzoa ikusi nahi dudalako dir-dir egiten eta*

bizi-bizi. Elgoibar euskaldunagoa egiteko naiz ni Elgoibarko izarrako bazkide”.



## Elkartearen inguruko en ahotik

Elgoibarko Izarrak ez du bakarrik jardun 50 urte hauetan. Elgoibarren eta Euskal Herrian kokatu du bere eginkizuna, eta inguruko makina bat eragilarekin egin du topo bide horretan. Herria handia da, eta dihardutenak asko, baina horietako gutxi batzuk batu ditugu hemen. Elkartearen 50 urteen balorazio motza eskatu diegu, eta bakoitzak beretik erantzun dio galderari.

### MARI JOSE ZUBIAURRE

Musika eskolako zuzendaria



*"Musika eskolak harreman ona izan du Elgoibarko Izarrarekin, eta Gurean Bairen garaie-*

*tan elkarteak lan handia egin zuen Musika Eskola euskalduntzeko."*

### IZASKUN ESTIBARITZ

Haizea Emakume taldeko kidea



*"Elgoibar euskalduntzearen ardura ez da Elgoibarko Izarrarena bakarrik, baina lan asko dago*

*egiteko oraindik, eta beraz, Elgoibarko Izarra garrantzitsua da herriarentzat helburu hori lortu nahi badugu."*

### BENANTZIO OTAEGI

Elgoibarko Parrokoa



*"Jendeak, inpresio ona du Elgoibarko Izarrak. BARREN gogoko dute herritarrek, euskararen presen-*

*tzia publikoa indartzeko lanean ari delako. Etxeparek idatzia dut gogoan: euskara, irten hadi kanpora, irten hadi plazara!"*

### EDURNE BILBAO

Ikastolako presidentea



*"1962ko maiztzean gure seme-alabek euskaraz ikasteko ametsari ekin genion Elgoibarren,*

*legeak kontra genituela. Baina ez zineten beldurtu, eta ahaleginak merezi zuela erabaki zenuten. 50 urte pasa ondoren, ametsa errealitate bihurtu da."*

### ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA

Morkaikoko presidentea




*"Ikastolia, BARRENA eta umiekin lotutako proiektuak jotzen doguz garrantzitsuenentzat.*

*Gaiñera, horrenbeste urtian lanian jarduteko izan daban gaittasuna, arazo larrixei aurre eginez. Beste 50 izan daittezela gutxienez!!"*

### IBAN URIZAR

Sinuõse kultur elkarteko kidea



*"Elgoibarko Izarrak 50 urtetan euskara bultzatu du ekimen ezberdinekin, eta bide batez bere izatearen*

*sustraiak errotu ditu. Herri hau euskaldun izaten jarraitzea nahi badugu, Elgoibarko Izarraren argi izpiak beharko ditugu hurrengo 50 urtetan ere."*

### KRISTINA ZUATZUBIZKAR

Udaleko euskara saileko teknikaria



*"Guretzat garrantzitsuenak azken 20 urteak izan dira, hitzarmen bidez, Udalak eta elkarteak*

*bat egin dutelako euskara bultzatzeko asmoan. Horretarako, ezinbestekoa izan da bai erakundeen arteko bai teknikarien arteko elkarlana. Espero dugu aurrerantzean ere horrela jarraitzeko aukera izatea."*

### SARA BERNEDO

Txankakuako presidentea



*"30 urte hauetan Elgoibarko Izarra euskararen alde lan egin duen erakunde garrantzitsua izan da.*

*Garai zailagoetan, elkartearen lana oso baliagarria izan da. Orain ere, euskara bultzatu, BARREN aldizkaria astero atera, Atxutxiamaikako ekintzak... Zorte ona opa diogu, eta aurrerantzean bere presentzia izatea espero dugu."*

### MIKEL IRIZAR

Euskara-Elkarteen Topaguneko presidentea



*"Elgoibarko Izarra aitzindari izan zen euskararen aldeko mugimenduan. Une hartan gidaritza hartu*

*zuen, katea ez zedin eten. Eta gero eskuzabal bildu zen beste aitzindarien arrastora, talde lanera. Ibilbide bikaina. Eutsi!"*

# Merezi zabam!

asteburua

MARTXOAK 15 eta 16

## GAUR, ostirala:

- 20:00etan, Herriko Antzokian, 50. urteurreneko ekitaldi nagusia
- 21:30ean, Maalako parkean, karparen irekiera:
  - o Afari-luntxa (doan da eta ez dago izena eman beharrik)
  - o Etxekoan musika-kantuekin girotutako afalostea.

## BIHAR, zapatua, Maalako karpan:

- 13:00 Karparen irekiera
- 13:30 Erakusketa gidatua.
- 14:30 Bazkari herrikoia.
- 15:30 Umeen ginkana: Elgoibarko Izarra ezagutuz.
- 18:00-20:00 Erromeria, Ezten giro! taldearekin.
- 21:00 Afaria (ogitartekoak).
- 23:00 Kontzertua: Xabier Solano eta DZ (Esne Beltza)

**50 urteotan lortu duguna  
ospatu egin behar dugulako.  
Merezi duelako. Merezi dugulako!  
ETORRI, ETA GOZATU!!**

Antolatzailea:

ELGOIBARKO IZARRA   
KULTUR ELKARTEA  
50. urteurrenaren ospakizuna

Laguntzailea:

 **elgoibar**  
biZi-buZiXal  
ELGOIBARKO UDAIA

## Denboraldi bukaera estua du Regional mailako C.D. Elgoibar taldeak, eta zaleen babesa eskatu du zapatuko partidarako

Zazpi jardunaldi falta dira liga amaitzeko, eta jaitsiera postuetatik puntu bakarrera daude

**E**z du egoera erraza bizi Regional Preferente mailako C.D. Elgoibar taldeak. Biharkoarekin, zazpi jardunaldi falta dira Liga amaitzeko, eta jaitsiera postuetatik puntu bakarrera dago C.D. Elgoibarko taldea, 23 punturekin. Bihar jokatu du falta diren zazpi finaletatik lehenengoa, Amaiak Bat taldearen kontra, eta zaleen babesa ezinbestekoa dutela ohartarazi dute taldekideek. 16:00etan izango da partida, Mintxetan. "Denen bultzada behar du gu mailari eusteko".

2010-2011. denboraldian Ohorezko Mailara igo zen gaur regional mailan ari den talde hau, baina, iaz, maila galdu zuten berriro, eta aurten ez lukete beherago joan nahi. Regional mailan hiru talde jaisten dira mailaz, eta atzetik hasita laugarren dira elgoibartarrak sailkapen nagusian. Atzetik dituzte SBB Mutrikuarrak, Beasain S.D. eta



Idiazabal K.E. taldeak, 22, 19 eta 15 punturekin hurrenez hurren, eta atzeko horiek zer egiten duten gertutik jarraitzen badute ere, gorakoengan jarrita dituzte begiak euren, (Bost puntura dute Lazkao). Talde gaztea da oso C.D. Elgoibarko Regional taldea, eta horrek baditu bere alde on eta txarrak. Beteranoak taldea uzten joan dira eta harrobiko jendeak egin du gora, eta ho-

rrenbestez talde berria osatu behar izan dute. Hori izan daiteke aurten estu ibiltzearen arrazoia, baina aurrera begira itxaropentsu daude. Talde polita osatu dute, eta emaitzak etorriko dira. Josu Guinea eta Angel Quintanak zuzentzen dute taldea, eta lau jokalarik ez beste guztiak elgoibartarrak dira (Bi mendarok eta bi eibartarrek jokatzen dute taldean).

## Sanlo eskubaloi klubeko hamazazpi taldetatik zazpi lider dira euren mailan

**S**anlon badute pozik egoteko motiborik. Klubeko hamazazpi taldeetatik zazpi lider dira euren mailan: Errendimendu ligan jokatzen duten eskubaloi eskolako bi talde, infantiletako Cometel mutilen taldea eta Murgil nesken taldea, senior mutilen Gabaz taldea, Euskal Liga Lauko jubeniil neskek eta Tecnifuelleko senior neskek. Hazten eta sendotzen ari da Sanlo familia, eta dagoeneko erreferente da zonaldeko eskubaloi taldeen artean.

Asteburu honetan senior mailako bi taldeek, Alcortak eta Tecnifuellek, etxean jokatu dute, Olaizaga kiroldegian eta klubeko arduradunek jakinarazi dute, iragarpenak betez gero, kiroldegia bete egingo dela zapatuan. Alcorta For-

ging Groupek Urdaneta talde bizkaitarra hartuko du (17:45). Elgoibartarrak berderatzigarren postuan daude sailkapen nagusian, 18 punturekin, eta BM Corrales talde kantabriarraren aurka gaitzetik datoz. Urdaneta, berriz, hamabigarren dago sailkapen nagusian, eta joan zen astean galdu egin zuen, saikapeneko faroltxo gorriaren kontra: Balonmano Romo.

Tecnifuelle taldeko neskek, berriz, Alt. Basauri taldea izango dute aurrez aurre bihar, Euskadiko Txapelketako bigarren faseko bigarren bueltako estreinako partidari. Bigarren fase horretan lehenengo sailkatzen diren bi taldeek Final Four-ra jokatu dute apirilaren 19 eta 21 artean, eta itxaropentsu dira elgoibartarrak. Igor Lizarralde zuzendutako tal-

deak 23-26ko emaitzarekin irabazi zion Basauri taldeari joaneko partidari, eta bihar este horrenbeste egitea nahiko lukete.

Punta-puntako eskubaloiak gozatze-ko aukera izango da hortaz bihar, eta horregatik Klubak kiroldegira batzeko dei egin die kirolzale guztiei. Partida atsedendietan eskubaloi eskolako alebiren erakustaldiaz gozatze-ko aukera izango dute zaleek.

### Sanlo eta Korrika18

Sanlok jakinarazi du bi astez behin egiten duten zozketan batzen duten dirua Korrika 18 laguntzeko izango dela. Era berean, esan dute beste zozketa bat ere egingo dutela bihar, soinean bufanda txuri-gorria eramaten dutenen artean.

## Regil eski trabesia irabazi du Iñigo Larizek

Euskadiko Kopa txapelketa eskuratu du



**J**oan zen asteburuan jokatu zuten Andres de Regil eski trabesia Europako mendietan, eta oraingoan Euskal Herrira etorri da garaipena. Bikoteka jokatzeko da Regil trabesia, eta Iñigo Lariz eta Mikel Navarro izan ziren onenak. Larizek podiuma zeukan helburu, eta goreneko mailara igotzea lortu du. Garaipen honekin, Euskadiko Kopa Txapelketa eskuratu dute taldeka. Larizekin batera beste hainbat elgoibartarrek ere hartu zuten parte proban: Arkaitz Irureta eta Javi Gonzalez, Aitor Azkue eta Iker Leonardo, Maite Maiora mendarozarra eta Arkaitz Garai, eta Josu Zabala eta Oihana Apellaniz. Zapatuko saioan Haritz Arrietak eta Iñaki Laskurainek ere hartu zuten parte.

## Pilotaren jaia ospatu zuten zapatuan Kalegoen plazan



Pilota Eguna ospatu zuten zapatuan Kalegoen plazako frontoian, Elgoibar Ikastolak antolatuta. Orain dela hamasei urte hasi zen Ikastola Pilota Eguna antolatzen, gaztetxoaren artean pilotarekiko zaletasuna pizteko eta suspertzeko, eta ia bezala, aurten ere eszenatoki bikaina aukeratu dute pilotaren jaia ospatzeko: Kalegoen plazako frontoia. 1751n eraiki zuten eta Gizpukoa, Araba eta Bizkaiko frontoirik zaharrena. Eguraldia lagun, plaza jendez gainezka egon zen zapatu eguerdian, eta ez ziren falta izan gaztetxoentzako animoak. Lehen Hezkuntzako eta DBH 1. eta 2. mailako 64 neska-mutilek jokatu zuten guztira. **Argazki gehiago: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net).**

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Zalla 1 – Haundi 0 (3. maila)  
Anaitasuna 0 – Elgoibar 0 (Erreg.)  
Elgoibar 4 – Ostadar 1 (Neskak)  
Vasconia 2 – Elgoibar 3 (Jub.)  
Anaitasuna 2 – Elgoibar 2 (Kad. A)  
Sanse 3 – Elgoibar 1 (Kad. B)  
Elgoibar 0 – Aretxabaleta 1 (Ohorezko inf.)  
Elgoibar 6 – Anaitasuna 2 (Ale.)

### ESKU PILOTA

#### Debarroko Txapelketa

Lagunak 3 – Arrasate 22 (Kad.)  
Lagunak 22 – Arrasate 19 (Jub.)

#### Udaberri txapelketa

Beloki 25 – Lagunak 24 (Pala. 2. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 7 – Labastida 2 (2B)

### ESKUBALOAIA

Alcorta Elg. 26 – Corrales 19 (Sen. mut.)  
Aiala 33 – Tecnifuelle Elg. 25 (Sen. nesk.)  
Lauko Elg. 23 – Errotaberri 18 (Jub. nesk.)  
Beristain Elg. 26 – Usurbil 32 (Jub. mut.)  
Astigarraga Elg. 17 – Usurbil 24 (Kad. nesk.)  
Aloña Mendi 16 – Ikus Elg. 12 (Kad. nesk.)  
Urnieta 31 – Txariduna Elg. 31 (Kad. mut.)  
Pneumax Elg. 25 – Arrasate 28 (Kad. mut.)  
Amenabar 28 – Bankoa Elg. 32 (Inf. mut.)  
Deca Elg. 26 – Eibar 23 (Inf. mut.)  
Bera Bera 20 – Murgil Elg. 24 (Inf. nesk.)  
Legazpi 19 – Cometel Elg. 24 (Inf. nesk.)  
Aloña Mendi 10 – Aterpe 20 (Inf. nesk.)  
Alkideba Elg. 15 – Tolosa 12 (Ale. mut.)  
Eibar 9 – Alkideba Elg. 23 (Ale. nesk.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 16

10:00 Elgoibar – Amaikak Bat (Kad. A)  
12:30 Elgoibar – Ilintxa (Kad. B)  
16:00 Elgoibar – Amaikak Bat (Erreg.)  
18:00 Elgoibar – Lazkao (Jub.)

#### Domeka, 17

16:30 Haundi – Zamudio (3. maila)

### ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 9

9:45 Aterpe Elg. – La Salle Legazpi (Inf. nesk.)  
11:00 Bankoa Elg. – Urnieta (Kad. mut.)  
16:00 Ikus Elg. – Ereintza (Kad. nesk.)  
17:45 Alcorta Elg. – Urdaneta (Sen. mut.)  
19:30 Tecnifuelle Elg. – Basauri (Sen. nesk.)

#### Domeka, 10

10:00 Cometel Elg. – Aiala C (Inf. nesk.)  
11:15 Murgil Elg. – La Salle Legazpi (Inf. nesk.)  
12:30 Txariduna Elg. – Ereintza (Kad. mut.)

**LANA**.....

*Eskara*

- Mutila nagusiak zaintzeko prest edo beste edozein lanetarako prest. ☎ **686 077 316**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Ospitalean ere bai. ☎ **699 609 190**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, prest. Orduka edo interna. ☎ **626 052 165**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari, sukalde laguntzaile edota garbiketara lanetarako prest. ☎ **602 068 313**
- Emakumea lan bila. Nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko prest. Gauetan adinekoei konpainia egiteko prest. ☎ **628 738 472**
- Emakumea lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Astegunetan, goizez. ☎ **632 054 894**
- Neska lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari, sukalde laguntzaile edota garbiketara lanetarako prest. ☎ **608 474 923**
- Neska euskalduna eskaintzen da Aste Santuko oporretan umeak zaintzeko. Edozein ordutegi. ☎ **618 814 064**
- Neska lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanetarako prest. Astegunetan, goizez. ☎ **699 232 823**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka, gauetz nahiz asteburuetan. ☎ **680 121 252**
- Neska gaztea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketara egiteko. ☎ **648 505 256**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka nahiz asteburuetan. ☎ **609 842 165**

- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak. ☎ **606 118 964**
- Emakumea lan bila: nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest. ☎ **943 257 605**
- Gizonezkoa lan bila. Ospitalean pertsona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest. ☎ **688 812 845**
- Emakume elgoibartarra nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Goizez, arratsaldez edo orduka. ☎ **660 551 781**
- Adinekoak edo umeak zaintzen edota garbitzen egingo nuke lan. Astelehenetik barixakura, interna nahiz orduka. ☎ **646 143 287**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. Esperientziaduna. ☎ **660 113 373**
- Emakumea lan bila. Etxeko lanak egiteko, sukalde laguntzaile aritzeko edo umeak zein nagusiak zaintzeko prest. ☎ **638 884 104**
- Esperientziadun mutila zerbitzari lanetarako prest. Ordutegi malgua. ☎ **692 332 871**
- Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanetarako prest. Ordutegi malgua. ☎ **686 052 084**
- Bi neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaintzen edo garbiketara lanetan egingo genuke lan. Esperientzia eta gomendioak ditugu. ☎ **625 895 460 (Carmen) / 638 835 824 (Oneida)**

*Eskaintza*

- Eibarko taberna batek euskaraz dakien zerbitzaria behar du. ☎ **697 245 186**

**ETXEBIZITZAK**.....

- Logelak alokagai, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Etxea eta jantziak garbitzen ditut. ☎ **679 843 332**
- 30 urteko mutila pisua eta pisukide bila dabil. Aukeran nahiago du pisukide emakumezkoa. ☎ **650 015 311**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **686 052 084**

**KINTOAK**.....

- 1973an jaiotakoek bazkaria egingo dute ekainaren 1ean, Belaustegi jatetxean. 50 euro sartu behar dira kontu honetan, maiatzaren 15erako. 2101 0036 64 0013151006
- 1978an jaiotakoek bazkaria egingo dute apirilaren 13an, Karakate jatetxean. 50 euro sartu behar dira kontu honetan, apirilaren 2rako. 3035 0007 23 0071126481. 12:45ean elkartuko dira Maalan.

**BESTELAKOAK**.....

- Martxoan hiru hilabete beteko dituen katutxoaren oparituko nioke ondo zaintzeko prest dagoenari. ☎ **943 740 687**
- Sukalderako egurrezko mahai berria salgai. 120x80cm neurrikoa. Luzatu egiten da. ☎ **943 748 864**
- Ezkontza eraztuna galdu dut, Karkizaotik Maalara bitartean. Estimatu handikoa. ☎ **943 741 164**

ESKERTZA

**ARRATE ZUAZUBIZKAR MURUA**



*Urak dakarrena  
urak daroa  
zuk emandakoa  
gurekin gelditzen da.*



*2013ko martxoaren 7 hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



• Zorionak, **Mikel**, martxoaren 7an 4 urte egin zenituelako. Muxu asko denon partez.



• Zorionak, **Unai**, pirata, martxoaren 13an 6 urte bete zenituelako. Oso ondo pasa genuen. Jarraitu beti bezain txintxo. Etxekoak.



Zorionak, **Ixaso**, etxeko guztien partez. Kua, kua, kua...



• Zorionak, **Mari**, martxoaren 19an 91 urte egingo dituzulako. Lagunen partez.



• Bi eta bi, lau dira. Eta beste bi, sei dira, **Hai-zea**. Hau markal Zorionak eta muxuak familiakoen partez.




• Zorionak, **Ilargitxo bixol**! Ondo pasa zure 3. urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, Jurenen partez.



• Zorionak, etxeko **futbolariari**, bere 8. urtebetetzean. Ondo pasa, familiakoen partez.



• Zorionak, **Julen**, zure 4. urtebetetzean. Etxekoak eta bereziki, Unairen partez.



• Ika, ika, ika, badator Korrika! Onak, onak, onak, **Lurri** zorionak. Olo, olo, olo, lau patxo potolo.



• Zorionak, **Paule**, asteartean 3 urte egingo dituzulako. Ondo pasa familiakoekin eta lagunekin. Muxuak, bereziki, Lukaren partez.



• Zorionak, **Maddi**, igandean 4 urte egingo dituzulako. Etxekoak eta bereziki, Garaziren partez.



• Zorionak **Xuban!** Hamar muxu handi, bat urte bakoitzeko. Familiakoen eta bereziki, anaia Aimarren partez.



• Zorionak, **Marina**, zapatuan 5 urte potolo egingo dituzulako. Etxekoak eta bereziki, Naroa, Paula eta Jurenen partez.



• Zorionak, **Lara**, gure Mari Bruji, atzo 3 urte handi egin zenituelako. Muxu pila bat etxekoak eta bereziki, Paul eta Nastiairen partez.



• Zorionak, **June**, hilaren 18an 4 urte beteiko dituzulako. Amatxo, aitatxo eta Gariaren partez.



• Zorionak, **Telmo eta Iñigo**, bihar urte bat egingo duzuelako. Etxekoak eta bereziki, Antxon eta Nerearen partez.



• Zorionak, **bikote**, zuen urtebetetze egunetan. Muxu handi bat etxeko guztien partez.

**AGURREN ATALEKO PREZIOAK:**

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

**ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## 15 barixakua

### Erakusketa

18:30 'Isilduak'

Yves Matxikoteren margo erakusketa Kultur Etxeko erakusketa gelan.

### Jaialdia

19:00 Ikastolako umeen jaialdia Ikastolako frontoian.

### Ospakizuna

20:00 Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena

Errekonozimendu ekitaldia, Herriko Antzokian.

21:30 Maalako karparen irekiera

21:45 Luntxa

22:30 Etxekoen goxotasuna

Kantuz alaituko dute afalostea, Maalako parkean.

## 16 zapatua

### Ospakizuna

13:30 Argazki erakusketa

Elgoibarko Izarrari buruzko erakusketa, Maalako karpian.

14:30 Bazkaria

15:30 Umeentzako ginkana

17:30 Errormeria

Ezten giro taldearekin.

21:00 Ogitartekoak

23:00 Dantzaldia

Xabier Solano eta DZ (Esne Beltza).

## 17 domeka

### Kirola

10:00 Kalamuara irteera

Ikastolako gurasoek antolatuta.

### Antzerkia

16:30 'Txarlestrup'

Ume eta gurasoentzako antzerkia, Herriko Antzokian.

### Musika

19:00 Kontzertua

Sinuosek antolatuta, Joseba B. Lenoir, kultur etxeko sotoan.

## 18 astelehena

### Musika

19:30 Kontzertua

Inazio Bereziartua musika eskolako talde instrumentalen kontzertua. Auditorioan.

## 19 martitzena

### Hitzaldia

19:00 Koloneko minbizia

Minbiziaren kontrako elkarteko kideek eskainiko dute, Zubi Ondo elkartean.

### Hitzaldia

19:30 Etxe kaleratzeak stop

Debabarreneko etxe kaleratzeen kontrako taldeak informazio saioa eskainiko du. Kultur Etxean.

## 20 eguaztena

### Suskara

15:15 Korrika txikia

Herri Eskolako eta Ikastolako umeek egingo dute korrika, Maalan hasita.

20:00 Korrikari ongi-etorria

Maltzagatik iritsiko da euskararen aldeko lasterketa. Sigmako zubian egingo diote herritarrek ongi-etorria, Mautitxa txarangarekin.

## 22 barixakua

### Bideo forum

21:30 'Pago justo'

Loredi Salegi izango da hizlaria. Kultur Etxean.

### Dokumentala

21:30 'Egunez eguzkia eta gaeuz izarak'

Jairo Berbelek Tomas Madinabeitiaren bizitzari buruzko dokumentala eskainiko du Herriko Antzokian.

## ZINEA

### 'El vuelo'

16, zapatua: 19:00/22:15

17, domeka: 19:00

18, astelehena: 21:30



### 'Habemus Papam'

(Ongarri zinekluba)

21, eguena: 21:30



### OKINDEGIA

17 domeka:  
EIZAGIRRE

#### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

### BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

#### Egunez

9:00 - 22:00

15 Barrenetxea  
16 Ibañez  
Goizez: Yudego  
17 Ibañez  
18 Garitaonandia  
19 Etxeberria  
20 Fernandez  
21 Yudego  
22 Zabaleta

#### Gaeuz

22:00 - 9:00

Barrenetxea  
Yudego  
Yudego  
Garitaonandia  
Etxeberria  
Garitaonandia  
Yudego  
Etxeberria



Aste Santuko  
ekintzen izenemateak  
martxoaren 22an  
amaituko dira. Pasaiaiko  
irteeraren izenematea,  
martxoaren 15ean.

Apirilaren 4an paint ball  
irteera Gaztelekutik.  
Izena emateko epea  
martxoaren 22an  
amaituko da.





ARDANTZABIDE

# Zumaia

## Etxebizitza berriak preziorik onenean

Zumaiaiko Ardantzabiden prezio mugatuko 32 etxebizitza LIBREetako bat nahi baduzu, zoaz Udaletxera eta izena eman.

Epea: martxoaren 11tik apirilaren 19ra.

Argibide gehiago hemen:

[www.ardantzabide.es](http://www.ardantzabide.es)



Zumaia Udalak

# 943 31 68 68

[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

# sukia

Zure etxean zaude.  
Estás en tu casa.



TERRAZA HANDIAK

3 logelako etxeak  
garaje eta trastelekudunak  
**234.278€** + baz.

Iraili aurreko merkataritza auzapena. Informazio hau alda dezake arazo tekniko edo komertzialengatik. Inbentarioan ez dago gure bulegoetan iragarki honetan ez dagoen generako informazio gutia, S15/B0 Enago Delantak, apirilaren 23koak, erakusten duena.

# IF

# Isidruak



# IF

Martxoaren 15etik 30era arte  
Astelehenetik larunbatera: 18:30 – 20:30  
Kultur Etxeko erakusketa gelan, Elgoibar



[www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org)

elgoibar  
bizi-biziXal